

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak enpresaren motorra dira, ondorioz natura babesteaz gain, gure enpresa beraien beharrak asetzeko pentsatua dago, izan ere, nahi duten diseinua hautatzeko aukera dute.

Gure enpresaren bezeroak bi zatitan banatuko ditugu: pertsona partikularrak eta negozioak, izan ere, askotan tabernak, arropa dendetan... itsura eskusiboa eta modernoa duen lokal bat nahi dute eta gure altzariak lokal horientzat egokituak izango liriteke; aldi berean, partikularrak beraien etxebizitzari eskusibotasun puntua jarri ahal izateko da, askotan diseinu berezi baten bila dabiltza eta.




Bi kasu hauetan bezeroak helduak izango dira, izan ere, ekonomikoki independenteak izan beharko dira eta gainera dirudunak izango dira, hain zuzen ere, gure altzariak prezio altua izango dute, beraien prestaketarengatik eta gure bezeroek eskusibotasuna lortu ahal izateko. Egia da nerabe eta haurren gustukoak izan daitezkeela, baina kasu hauetan beraien kargu dauden helduek baldintzatuko dute, izan ere, ez direnez ekonomikoki independente, helduek ordaindu beharko dituzte.

Aldiz, ez dago egokituta herriko denda arruntei, egiazki, ez dator bat dendek duten diseinuarekin. Ezta dirua ez duen jendearekin, ez dutelako altzaritan hainbesteko dirua inbertituko edo gutxi batzuk bakarrik inbertituko luketelako, ondorioz, enpresaren salmentak ez ziren ugariak izango.

Harremana bezeroarekin interneten bidez izango da, bai web gune baten bidez eta baita sare sozialen bidez ere. Hauen bidez, askoz ere erosoagoa izango da bezeroarentzat eta aukera ugariak izango dituzte bere etxebizitza edo lokalari hoberen egokitzen zaion altzaria hautatzeko eta baita beraien nahi duten diseinua gurekin partekatuz ere.

Hasieran, sare sozialen bidez gure bezero potentzialekin harremanetan jarriko gara, partikularki gure web gunean ditugun produktuak ikus dezaten eta gure produktua ezagutzera emateko. Negozioekin, ordea, telefonoz jarri gaitzke kontaktuan edo lokalera gerturatu eta multinazionalen menpe dauden dendekin, berriz, hauek diseinatzen dituzten jendearekin jarriko gara kontaktuan internet edo mugikorraren bitartez.



Aurreko astean gure ustezko bezero potentzialei galdetegi bat eman genien eta honako erantzun hauek jaso genituen. Bezero partikularrei sare sozialen bidez jarri ginen harremanetan eta denda fisikora joan egin ginen. Guztira 20 izan ziren eta horietako 18 gure altzari diseinua gustatu egin zitzairen, beste biek berriz ez. Gustuko

zuten 18tatik 8k esan zuten ez zutela hainbeste diru inbertituko altzarietan. Geratzen diren 10ek gogoko zutela eta erosiko zutela esan zuten, izan ere, diseinua hautatzeko eta beraiek autoa eramateko aukera asko gustatu zitzairen, horrela bilatzen duten eksklusibotasuna izan eta beraien auto zaharra berrerabili zezaketen.

